Aurten beste behin ere, NUKFk Garapen Lankidetzarako Toki Funtsaren baitan hitzarmena izenpetu du GGKEen Koordinakundearekin, elkarlanean hainbat jarduera egiteko eta GGKEen zerbitzuak udalei hurbiltzeko.

Bestalde, Federazioko lehendakariak hautatu berri den Koordinakundearen zuzendaritza batzordearekin bildu zen. Saio horretan, bi alderdiek amankomunean dituzten gaiak egunean jarri zituzten.

## Nafarroako saharar ordezkariak

Udaro bezala, “Vacaciones en paz” programaren barruan harrera familiarekin uda Nafarroan igarotzera etorritako haur saharar talde bati harrera egin zion Federazioak uztailaren 16an. Hurrekin batera, Nafarroako Saharar Ordezkaritzako kideak eta udako jarduera hori antolatzen duen ANAS GKEko kideak ere bertan izan ziren.

Bestalde, iragan urriaren 11n, Juan Carlos Castillo Federazioko lehendakariak Lehib Breika saharar ordezkariari harrera egin zion. Bileran horretan, bi ordezkariak bi entitateek azken urteotan izandako harremanak mantentzearen aldeko apustua egin zuten.



## Caixa eta CAN banku fundazioak

Bi fundazio horiek finantzatu dute beste behin ere, hiri eremuak berreskuratzeko NUKFren deialdia. Horren bidez, materialen kostua ordaintzen da babestutako enplegu sozialarekin hiri eremuetan egiten diren obretan. Aurten, fundazioek egindako ekarpena, hitzarmen bidez bideratua, 90.000 eurokoa izan da. Aurrerago emanen da programa horren inguruko informazioa.

## Anfas

Anfas, desgaitasuna duten pertsonen aldeko Nafarroako elkartearen ordezkariak NUKFrekin batzartu zen haren babesa eskatzeko toki entitateen artean “irakurketa erraza” deituriko metodoa zabaltzeko. Metodo horrekin mezuak eta testuak errazago uler daitezke eta, hortaz, administrazioetan erabil daitezkeen metodoa da.

## Aralar ludopaten elkarteak

Federazioko lehendakaria Aralar ludopaten elkartearekin ere bildu zen. Bileran, Nafarroan jokoaren menpekotasunaren gaiari buruzko informazioa helarazi zioten. Bestalde, Federazioko lehendakariak gaiaren inguruan egiten ari diren ekimenak azaldu zizkion elkarteari. Bi alderdiek elkarlanean jarraitzeko asmoa adierazi zuten.

## Kirolaren gizabide batzordea

NUKFK Nafarroako Futboleko Federazioak bultzatutako kirolean gizabidea sustatzeko kanpainan parte hartu du. Kanpaina horretan, besteak beste, Nafarroako Gobernuko Kiroletako eta Gazteriako zuzendariordetzak eta komunikabideek ere parte hartu dute. Kanpainaren aurkezpena martxoaren 7an egin zen eta klub guztien futbol txapelketetan zabaldu da.

## **EGITURA**

### **Giza baliabideak**

Irailetik hona, Naiara Ibero Egaña da Federazioko itzulpengintza zerbitzuko langile berria Mikel Goñiren ordeaz, egun, eszedentzia egoeran dagoelako.

## **ZERBITZUAK TOKI ENTITATEEI**

### **Aholkularitza zerbitzua**

NUKFko egitura teknikoak jarraitu du toki entitateei ohiko aholkularitza zerbitzua ematen, bai bere ekimenez, bai beste zenbait bideetatik ere egiten zaizkion galderei erantzunez (aurrez aurre, telefonoz, posta elektronikoz bidez, idatziak etab.). Urtero bezala, Federazioak mila kontsulta baino gehiago erantzun ditu askotariko gaien inguruan.

### **Langileak hautatzeko laguntza teknikoa epaimahaietan**

#### **Idazkaritzako lanpostuak**

- Garesko Udala
- Alesbesko Udala
- Anue eta Lantzeko Udalen Batasuna
- Izaba-Ustarrotz Udalen Batasuna
- Arbizuko Udala
- Izarbeibarko Administrazio Zerbitzuen Mankomunitatea
- Lesakako Udala
- Arbizuko Udala
- Santakarako Udala
- Zangozako Mankomunitatea

#### **Kontu-hartzailatza lanpostuak**

- Cintruenigoko Udala
- Lekunberriko Udala
- Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Administrazio Zerbitzuen Batasuna

- Kontu-hartzailetzako bitarteko langile postua Atarrabiako Udalean.
- Altsasuko ATABO Sozietate Publikoaren Kudeatzailea.

### **Idazkaritza eta kontu-hartzailetza lanpostuak**

- Aresoko Udala
- Bertizaranako Udala
- Arantza eta Igantziko Udalen Batasuna
- Erronkariko eta Urzainkiko Udalen Batasuna
- Arano eta Goizuetako Udala
- Ameskoabarrengo Udala
- Bakaiku eta Iturmendiko Udalak

### **Aholkularitza juridikoko lanpostuak**

- Oltza Zendeako Kontzejuak

### **Administrari ofizial lanpostuak**

- Artaxoako Udala
- Cintruenigoko Udala
- Artzibar, Longidako ibarra eta Oroz-Beteluko Udalen Batasuna

### **Administrari laguntzaile lanpostuak**

- Santakarako Udala
- Ultzamako Udala
- Leringo Udala

## Txostenak prestatzea

Federazioko zerbitzu teknikoek entitateko organoetatik eskatzen zaizkien adina txosten prestatzen dituzte. Gainera, beste batzuk prestatzen dituzte hala eskatzen duten toki entitateentzat, bereziki, gai juridikoen inguruan. Aurten, honako hauek egin dira:

- Administrazio araubidean kontrataturiko langileei gradua aitortu eta ordaintzearekin lotutako 7 txosten.

## Hautetsientzako ikastaroak, hitzaldiak, jardunaldiak eta prestakuntza

Federazioak trebakuntza eta dibulgazioari lotuta egiten duen jarduerari dagokionez eta aurrerago hizpide dugun toki entitateetako langileentzako Etengabeko Trebakuntza Planaz gain, aurten azpimarratzekoa da udalbatza berrientzako eskainitako trebakuntza. Jarduketa gehienek duten helburua da hautetsi berriei izango duten rolaen eta ariko diren testuinguruari buruzko oinarrizko ezagutza eskaintzea.

### Udalbatza berriei eskainitako trebakuntza eta dibulgazio ekintzak

- **Toki entitateen langileentzako informazio saioa, maiatzaren 26ko hauteskundeei buruzkoa.** Joan den otsailaren 27an izan zen eta, bertan, udalek hauteskunde prozesuan zehar eta udalak eratzekoan egin beharreko jarduketan inguruan informazioa eman zen.
- **Hautetsi berrientzako trebakuntza saioak.**
  - **Toki Administrazioaren oinarrizko ezaugarriei buruzko hitzaldiak.** Bertaratutakoei oinarrizko informazioa ematea dute helburu, Toki Administrazioen antolakuntzari, funtzionamenduari eta jardunari buruz. Hiru saio egin ziren ekainaren 19tik 24rako epean Iruñean, Tuteran eta Lizarran.
  - **Udal jardunaren arlo nagusiei buruzko hitzaldiak.** Udal jardunaren arloen ezaugarri nagusiak ezagutzera ematea dute xede: Araudia, udalek egiten dituzten jarduerak, udalekin lotutako Nafarroako Gobernuko politikak (programak, dirulaguntzak...) etab. Ondorengo saioak egin ziren:
    - Urriaren 25ean, Gizarte politikak.
    - Urriaren 28an, Toki ogasunak.
    - Azaroaren 7an, Berdintasuna.
    - Azaroaren 13an, Jasangarritasuna. Ingurumena.
    - Azaroaren 20an, Kultura, Kirola eta Gazteria.
    - Azaroaren 27an, Gardentasuna.

- **Beste trebakuntza eta dibulgazio ekintza batzuk.**

Udalbatzak berritzeari lotutako jardunaz gain, Federazioak bestelako jardunaldietan parte hartu zuen:

- **Jardunaldia, udal politikan parte hartzeak Pirinioa garatzeko duen garrantziari buruzkoa.** Pablo Azcona lehendakari zela, Txantxalan Pirinioko elkarteak urtarrilaren 26an Burgin antolatutako jardunaldian parte hartu zuen, toki politikak lurraldeen garapenerako duen garrantziari buruzko mintzaldi batekin.
- **Jardunaldia, toki entitateetan herritarren parte-hartze politikek izandako aurrerapausoei buruzkoa.** Martxoaren lehen izan zen eta politika mota horiek legegintzaldian zehar ebaluatzeaz gain, hurrengo legegintzaldirako oinarriak finkatzea izan zuen xede. Jardunaldia NUKFk eta Nafarroako Gobernuak antolatu zuten, legegintzaldi hasieran izenpetutako hitzarmenaren barruan.
- **Jardunaldia despopulazioari buruzko 1234/2018 Errege Dekretua aurkezteko.** Martxoaren 25ean izan zen eta Dekretuaren neurriak aurkeztea zuen xede: ekintzailetza ekimenen finantzazioa eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko toki entitateetan bizi eta hiri-eremutik urrun dauden ekintzaileentzako trebakuntza eskaintza.

## **Komunikazioa eta argitalpenak**

Komunikazioari dagokionez, honako hauek azpimarratuko genituzke:



### Concejo aldizkaria

Aldizkako argitalpen hau hilabete eta erdian behin argitaratzen da eta Nafarroako toki entitate guztietako hautetsiei igortzen zaie. Hautetsiek formatu digitalean (pdfan) jasotzea edo aldizkaria ez jasotzea hauta dezakete.

## Informazio buletin digitala

Posta elektronikoz bidez igortzen zaie toki entitate guztiei eta buletinaren harpidetza egiten duen pertsona orori. Hiru astean behin bidaltzen da gutxi gorabehera. Buletinak albisteak eta zenbait deialdi biltzen ditu.

## Legedi Buletin digitala

Astero bidaltzen zaie informazio buletin digitala jasotzen duten hartzaile berberiei. Buletin honek Estatuko eta Nafarroako Aldizkari Ofizialetan argitaratzen diren xedapenen idazpuruak eta horien loturak jasotzen ditu.

## NUKFren webgunea

Webguneak ohiko atal eta edukiei eutsi die, eta egunero gaurkotzen da.

## Twitter

NUKFk Twitter sare soziala ere erabiltzen du informazioa zabaltzeko.

## Nafarroako Toki Entitateen Gida (2019-2023)

Nafarroako Toki Entitateen Gida (2019-2023) dagoeneko eguneratua dago webgunean. Orain, azaroaren 17ko hauteskunde partzialen ondoren paperean argitaratzeko lanetan ari dira.

## Komunikabideei arreta

Komunikazio jardueren artean, NUKFk, hala dagokionean, komunikabideei prentsa-oharra igortzen die, prentsaurrekoak egiten ditu, zenbait artikulua bidaltzen ditu edo komunikabideak ekitaldietara gonbidatzen ditu, esate baterako, batzar nagusietara. Prentsa-oharrei dagokienez, aurten hamar bidali dira.

Bestalde, komunikazio zerbitzuek komunikabideen eskariei ere arreta ematen diete.



## **Etengabeko Prestakuntza Plana Nafarroako toki enplegatuentzat**

2019an, NUKFk toki langileentzako Etengabeko Prestakuntza Plana gauzatu du beste behin ere. Plan hori Etengabeko prestakuntzaren esparru akordioaren barnean dago, zeina administrazio publikoek eta UGT, CCOO, CSI-CSIF eta CIG sindikatuek sinatu baitzuten.

Aurten, Federazioari 155.500 euroko dirulaguntza esleitu zaio eta kopuru horretatik 38.875,00 € jaso du aurrerapen gisa, aurrerapen moduan jaso daitekeen gehienezko %25 alegia.

Guztira, 177 prestakuntza ekintza egin edo eginen dira urtea bukatu aurretik, 85 ikastarotan (horietako batzuk behin baino gehiagotan egiten dira).

3.729 eskaera jaso ditugu, hala ere, deitu gabe dauden berariazko ikastaroen eskaerak ez dira datu horretan kontuan izan; hortaz, urte bukaerako eskaera-kopurua handiagoa izanen da. Txosten hau egiteko unean, ikastaro batzuk itxi gabe zeuden oraindik.

### **Honako hauek dira urtea bukatu baino lehen egin diren edo egiteko dauden ikastaroak:**

<b>IKASTAROA</b>	<b>Zenbat aldiz</b>
<b>Alor juridiko-administratiboa</b>	
Toki administrazioaren legediaren berritasunak	1
Administrazio Prozedurari buruzko 39/2015 Legea. On line	1
Sektore Publikoari buruzko 40/2015 Legea. On line	1
Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea. Ikastaro orokorra	2
Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea: PLENA aplikazioa	2
Administrazio elektronikoaren hastapenak. On line	1
Datuak babesteari buruzko araudia. On line	1
Datuen babesa aplikatzearen alderdi praktikoak	1
Toki entitateei aplikatzea maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa	1
Txostenak egiteko teknikak. On line	1
Espediente elektronikoak kudeatzea toki entitateetan	1
Mekanografia. On line	1

Espediente elektronikoa: Kontratu Publikoen kudeaketa	8
<b>Langileriaren eta laneko arriskuen prebentzioaren alorra</b>	
Nominak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioak prestatzea	1
Laneko arriskuen prebentzioa igeltsero lanetarako	1
Bizkarreko minari aurre hartzea	7
Lehendabiziko sorospenak eta desfibriladorea erabiltzea	3
Lehen sorospenak	2
Estresari aurre egitea eta kontrolatzea	2
Suak itzaltzea	2
<b>TOKI OGASUNEN ALORRA</b>	
Aurrekontuen egonkortasuna aplikatzeko berritasunak	2
Udal zergak	1
Katastroaren kudeaketa eta balorazio txostenen prestaketa	1
Kontabilitate publikoa eta aurrekontuen kudeaketa	1
Udalen kontabilitate-kudeaketa osorako aplikazioaren birziklapen-ikastaroa: Partida soila	2
Aurrekontuen egonkortasunaren oinarritzko ikastaroa	1
Dirulaguntzen kudeaketa	1
Barneko kontrola toki entitateetan: Kontu-hartzailatza	1
<b>Kudeaketa publikorako eta kalitaterako tresnak</b>	
Trebetasun sozialak gatazkak konpontzeko	4
Laneko jazarpena. Bitartekaritza lan-esparruko gatazkak aurreikusi eta konpontzeko sistema gisa	6
Zerbitzuaren kalitatea kanpoko bezeroei eta erabiltzaileei arreta egitean: segimendua	3
Lantaldeen motibazioa	1
Emozioen kudeaketa. Mindfulness-a	3
Denboraren planifikazioa eta erabilera eraginkorra. On line	1
IKTen tresnak eguneroko lana antolatzeko	1
Sarean lan egitea II. Arangurengo haurren babeserako sarea	1
Estrategia aldaketaren buru izateko erakunde eta taldeetan	2
<b>Kulturaren, kirolaren, gazteriaren eta berdintasunaren alorra</b>	
Berdintasun-arloko eragileen ahalduztze profesionala eta pertsonala berrikusi eta eguneratu	1
Berdintasun politikei buruzko aholkularitza programa, langile teknikoentzat	1
Sare sozialak kultura teknikarientzat	1

<b>Gizarte zerbitzuen alorra</b>	
Dementia dutenekin lan egitea zahar-egoitzetan	5
Zainketa aringarriak	1
Loturen tratamendua arreta geriatrikoan.	1
Dependentzia dutenen mobilizazioa	3
Prestakuntza sistemikoa eta ikuskapena gizarte zerbitzuetan	1
Etika etxeko arretan	2
Taldean kudeaketa zahar-egoitzetako langileentzat	3
Lehendabiziko sorospenak arreta geriatrikoan	2
Pertsona ardatz duen arreta	4
<b>Zerbitzu anitzen eta lorezaintzaren alorra</b>	
Eraikinetako oinarrizko mantentze-lanak	1
Plataforma jasotzailea (mota bat baino gehiago)	3
Norbera babesteko ekipoak erabiltzea garaierako lanetan	1
Eskorga kontrapisatuak eta atzeragarriak erabiltzea, 10.000 kg arte jasotzekoak	2
Garbitzeko teknikak	1
Ureztatzeko teknikak	1
Motozerra eta esku-motosega erabiltzea	1
Produktu fitosanitarioak erabiltzea	1
Lorezaintzako eta inausketako ikastaroa	2
Inausketa	1
Igerilekuetako operadoreak	3
Lorategiko izurriak eta eritasunak, kontrolerako teknika berriak	1
<b>Haur eskolen eta musika eskolen alorra</b>	
Jarrera egokiak ikastea, haur eta musika eskoletarako	6
Lehendabiziko sorospenak eta desfibriladorea erabiltzea Musika Eskolan A-I ikastaroa	12
Hezkuntzarako lekuak eta materialak	1
Haur eskoletako heziketa motak	1
Proiektuka lan egitea	1

<b>Udaltzaingoaren alorra</b>	
-------------------------------	--

Arreta psikologikoa biktimei	1
Internet, sare sozialak eta ziberdelinkuentzia	1
<b>Informazio sistemen alorra</b>	
Word 2010. On line	3
Word aurreratua 2010. On line	6
Excel 2010. On line	3
Excel aurreratua 2010. On line	6
Access datu-baseak 2010. On line	3
Access aurreratua 2010. On line	3
Power Point 2010. On line	3
Aurkezpen eraginkorrak Power Point bidez	1
Outlook 2010. On line	3
Instagram. Gazteen sare soziala ulertzea	1
Facebook. Herritarrekin komunikatzeko tresnak	1
Newslettarrak: Sortu email erakargarriak eta pertsonalizatuak Mailjet programarekin	1
Hodeia eta Google Drive	1
Prezi Next	1
Diseinua diseinatzaile ez direnentzat	1
Komunikazio aktiboa eta asertibitatea. On line	1
Interneten nabigatzea eta arrakastaz bilatzea. On line	1

## Nafarroako Garapen Lankidetzarako Toki Funtsa



Nafarroako Garapen Lankidetzarako Toki Funtsean, zeina NUKFk kudeatzen baitu hala agintzen dioten toki entitateentzat, 130 toki entitate daude hari atxikita aurten behin-behinekoz (azaroaren 2an).

Funtsaren bidez lortutako baliabideak, batetik, garapen bidean dauden herrialdeetan garapeneko hamaika proiektu finantzatzeko baliatu dira (234.000 euro) eta, bestetik, Nafarroako GGKEEn Koordinakundearekin izenpetutako hitzarmena garatzeko ere bai (8.000 euro).

Honako hauek dira Funtsean parte hartzen duten entitateak:

Ablitas, Ageza, Aguilar Kodes, Aiegi, Aizpurgi, Aldaba, Alesbes, Altsasu, Añezkar, Añorbe, Arantza, Aras, Arbontze, Arraitz-Orkin, Arripodas, Artabia, Artazu, Aizkoa, Aurizberri, Azketa, Azotz, Azpirotz, Barasoain, Beire, Beorburu, Berbintzana, Beriain, Berriobeiti, Berriogoiti, Betelu, Bidaurreta, Biurrun-Olkoz, Burlata, Caparroso, Carcar, Cordovilla, Domeñu, Doneztebe, Dorre Elortzibar, El Busto, Elkarte, Elortz, Eneritz, Eraul, Eritzebeiti, Errezu, Erromantzatua, Esteribar, Etaiu, Etxarrentxulo, Etxauri, Eultz, Ezkabarte, Ezkaroze, Ezporogi, Gaberderal, Galipentzu, Galoze, Garralda, Genevilla, Geserlocal, Girgillao, Gorozin, Gorza, Gulia, Hiriberri Artzibar, Igantzi, Iguzkitza, Imotz, Iraizotz, Iruña, Iruñerriko Mankomunitatea, Irurre, Iturgoien, Izarbeibarko Mankomunitatea, Kaseda, Lakar, Lantz, Lapoblación, Larrion, Leitzza, Lekunberri, Lerate, Lesaka, Lodosa, Los Arcos, Lukin, Luzaide, Mairagako Mankomunitatea, Mañeru, Martzilla, Melida, Mendabia, Mendaza, Metauten, Mezkitz, Miranda Arga, Murillo el Cuende, Muskitz, Nabaskoze, Nabaskoze (kontzejua), Nazar, Noain, NUKF, Ollaran, Ollobarren, Oltzazendea, Orkoien, Orokieta-Erbiti, Orontze, Pitillas, Sagasetta, Santsol, Saratsa, Sartaguda, Sunbilla, Tebas, Tebas-Muru Artederreta, Tirapu, Udabe-Beramendi, Ukar, Urbiola, Urraulbeiti, Urritzola, Urrotz-hiria, Ustaize, Viana, Zangoza Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea, Zubieltki eta Zufia.

**Diru-sarrerak guztira: 245.018,83 €**

**2018ko gerakina: 9.408,00 €**

## Honako hauek dira hautatu diren proiektuak:

### Hitzarmena Nafarroako saharar ordezkarezekin:

I. **Proiektua:** Esnea Saharako haurrentzat

**Herrialdea:** Aljeria

**GKEa:** Asociación navarra de amigos y amigas de la RASD (ANARASD)-RASD Adiskidantzarako Nafar elkarte

**Jarduerak:** 2001. urtetik elikagaien sektorean krisi sakona gertatzen ari da krisi kroniko batetik eratorria. Azken urteotan, egoera okerrera egin du egungo krisi ekonomikoarengatik eta horrek kanpalekuetan eragin negatiboa izan du, bereziki, sektore zaugarrienean, hots, 0 eta 2 urte bitarteko haurrengan. Haur horiek dira elikagaien krisi honek gehien kolpatu dituenak amen anemiak ugalduz eta haurren pisu eta altuera txikia ugarituz, eta beraz, malnutrizioa handituz. Hori horrela, haurren malnutrizioa ekiditeko haurrentzako esnea banatzen da onuradun gisa identifikatutako populazioaren artean.

**Dirulaguntza:** 24.000,00 €

### Urteko deialdia

I. **Proiektua:** Nekazaritza eta basozaintzako garapena eta ingurumenaren babesa Mordan udalerrian

**Herrialdea:** Dominikar Errepublika

**GKEa:** Asociación Nuevos Caminos

**Jarduerak:** Proiektuaren helburua da Barrera udal-barrutian nekazaritza garatzea ur-hornidura hobetzeko ur-gordailu bat eraikita eta La Humanitaria nekazarien elkarteko kideak diren eremuko nekazariei trebakuntza emanaz ereite sistemai, uraren erabilerari eta laborantza berrien (mahatsa eta pitahaya) erabilerari buruz. Ur-biltegi ireki bat egingen da, 57x65x4 metrokoa, ura zanga batetik hartuz dagoeneko dauden laborantza tradizionalak (platanoa etab.) ureztatzeko. Horretaz gain, beste ur-biltegi ireki bat egingo da, 15x12x2 metrokoa. Kasu horretan, ura iturburutik hartzeko adukzio lerroaren hartune-obra eta bigarren lerroarena egingo da eta, azkenik, tantaz tantako ureztatze sistema jarriko da.

**Dirulaguntza:** 22.698,31 €

2. **Proiektua:** Programa integrala, Kangrin herriko haurrei hezkuntzarako eskubidea itzultzeko (Burkina Fasoko iparraldeko eskualdea, Passoré probintzian).

**Herrialdea:** Burkina Faso

**GKEa:** Manos Unidas

**Jarduerak:** Guztira diren 48 komunitateetatik beste 10ek bezala, Kangrin landa komunitateak ez du hezkuntza azpiegitararik eskolara joateko adinean dauden haurren irakaskuntza beharrei erantzuteko. Proiektuak helburu du ekintza pilotu bat egitea herri horretan: eskolaren kalitatezko azpiegitura ematea hezkuntzarako eskubidea bermatzeko haur guztiei. Gainera, proposatutako ekintzek higiena sustatuko dute herrixkan eta komunitateak ikastetxearen kudeaketan esku hartzea lortu gogo da.

**Dirulaguntza:** 24.000,00 €

3. **Proiektua:** Herritarren osasuna hobetzeko dimentsio anitzeko programa Gakenke barrutiko hiru sektoretan: Nemba, Karambo eta Kumubugan.

**Herrialdea:** Ruanda

**GKEa:** Medicus Mundi Nafarroa-Aragoi-Madril

**Jarduerak:** Proiektu hau 2019-2021 aldirako dimentsio anitzeko programa berri baten plangintzaren barruan kokatzen da. Programa horrek, generoarekiko sentikorra dena, Gakenke barrutiko Nemba ospitalearen eragin-eremuko populazioaren osasun egoera hobetzea du helburu. Zehazki, Nemba, Karambo eta Kamubuga sektoreetako lehentasunezko 7 komunitateen biztanleen higiena, saneamendua eta ur-sistemak sendotzeko helburua du programak.

**Dirulaguntza:** 24.000,00 €

4. **Proiektua:** Edateko ura eta saneamendua ematea Txadko errefuxiatu diren sudandarrentzat.

**Herrialdea:** Txad

**GKEa:** UNHCR Nafarroa

**Jarduerak:** Proiektu honi esker, edateko ur-horniduraren sistema mantendu eta hobetu egingen da ur eta saneamenduko instalazioak berrituz eta eraikiz (horretarako eskatzen da Lankidetzarako Toki Funtsaren laguntza). Horretaz gain, aipatu azpiegituren mantentze-lanak egiteko trebakuntza eskainiko da eta higieneari zein hondakinen bilketa egokiari buruzko sentikortze jarduerak egingen dira.

**Dirulaguntza:** 24.000,00 €

5. **Proiektua:** Haurren ikasteko eskubidea hobetzea ura eta saneamendua eskuragarri jarriz eta higiena sustatuz Burkina Fasoko ekialdeko eskualdeko 8 landa-eskoletan.

**Herrialdea:** Burkina Faso

**GKEa:** UNICEF – Nafarroako Batzordea

**Jarduerak:** Proiektua Burkina Fasoko ekialdeko eskualdeko 10 landa-eskolatan gauzatzen da. Bertan, gaixotasunen transmisioa eta eskola-absentismoa ekiditeko honakoak eraikiko dira:

Ur-sistemak eta eskuak garbitzekoak.

Sexuen arabera bereizitako komunak.

Gaitzeko, parte hartzeko eta sentikortzeko ekintzek ikasleak, irakasleak eta familiak inplikaturako dituzte instalazioen erabilera egokiarekin eta higiene praktika egokiarekin. Hezkuntzako eta Ura eta Saneamenduko Ministerioekin elkarlanean lan egingen dugu, Ura eta Saneamenduko Eskualdeko Zuzendaritzaren bitartez.

**Dirulaguntza:** 24.000,00 €

6. **Proiektua:** Saneamendu egokirako eskubidea ahalbidetzen Kikonkan.

**Herrialdea:** Kongoko Errepublika Demokratikoa

**GKEa:** ITAKA ESCOLAPIOS FUNDAZIOA

**Jarduerak:** Proiektu honekin bilatzen dena da, Kikonkan saneamendurako eskubidea ahalbidetzea sexuen araberako sarbide berezia duten komun publikoak eraikita Saint Pierre parrokiako zentro komunitarioan (emakumeentzako 3 komun, garbitzeko eremu bat eta eskuak garbitzeko 2 eremu eta gizonentzako 3 komun eta eskuak garbitzeko 2 eremu). Komun horien onuradun zuzenak guztira 245 pertsona izanen dira (192 emakume eta 53 gizon) eta orokorrak Kikonkako populazioa. 8 bolondreseko talde bat sortuko da eta trebakuntza emanen zaio, generoaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik saneamenduaren kudeaketa egokia eta zainketa bermatzeko.

**Dirulaguntza:** 18.730,00 €

7. **Proiektua:** Zaurgarritasun egoeran dauden neskatila eta emakume gazteentzako egoitza hobetzea eta berritzea Burkina Fasoko Nasson.

**Herrialdea:** Burkina Faso

**GKEa:** Fundación Manuel María Vicuña

**Jarduerak:** Proiektu honek Religiosas de María Inmaculada (aurrerantzean RMI) erakundeak Nassoko auzoan duen egoitzaren azpiegiturak hobetzea du helburu. Nasson, herrialdeko bigarren hiri populatuenetik, Bobo Dioulassotik, 15 kmra dago. Proiektuaren helburua lortzeko, hobekuntza obrak egingen dira, trebakuntza jasotzen duten bitartean bertan bizi diren neska gazteek baldintza duinetan bizi daitezen.

Ekintza garapen prozesu baten barruan kokatzen da neskatilen eta emakume gazteen harrera, sustapena eta ahalduntzea oinarritzat duena. Egun, prozesu hori Emakumeentzako Lanbide Heziketako Zentro baten eta Egoitza baten bidez gauzatzen da. Dimentsio anitzeko prozesu horrek oinarritzko zerbitzuak emateaz gain, emakume bakoitzaren egoerari eta kualifikazioari egokitzen zaion kalitatezko hezkuntza oso bat eskaintzen du. Horrekin bilatzen dena da emakume



horiek gizartean eta lan munduan txertatzeko eta emantzipatzeko aukerak handitzea, egun duten zaugarritasun ekonomiko eta soziala murriztuz.

**Dirulaguntza:** 3.911,00 €

8. **Proiektua:** Eguzki-energia baliatuz edateko ura eskuragarri jartzea, Taki landa eremuko herrixkan.

**Herrialdea:** Boli Kosta

**GKEa:** RODE fundazioa

**Jarduerak:** Taki herrixkak (1.100 biztanle) ez du edateko urik ezta elektrizitaterik ere. 1996tik aurrera, putzu moderno bat dauka, baina ponpa hondatuta dago. Hortaz, azaleko urez hornitzen da komunitatea, eta, egoera txarrean egonda, infekzioak eta eritasunak pairatzeko arriskua dago. Proiektuarekin, hornidura jasagarria egiteko sistema bat jarriko da martxan (urontzia eta eguzki ponpa), eta kanalizazioa eginen puntu estrategikoetaraino. Prestakuntza emanen zaie herritarrei uraren erabilera egokiaz eta kudeaketa batzorde bat arduratuko da mantentze-lanez; horrela bermatuko da proiektuaren jasagarritasuna.

**Dirulaguntza:** 23.931,75 €

9. **Proiektua:** Haurrentzako janari eta elikadura segurtasuna Maradiko emakumeen kolektibo baten ahalduntzearen bidez. Niger.

**Herrialdea:** Niger.

**GKEa:** Asociación Infancia sin Fronteras - ISF Navarra

**Jarduerak:** Proiektuak Safo Chadawa herrixkako 50 emakumez osatutako kolektibo batekin lan eginen du. Kolektiboari lursail bat eskura jarriko dio baita lurra lantzeko bitartekoak ere (ura, lanabesak, haziak eta abar). Era berean, proiektuak elkartearen kudeaketari buruzko trebakuntza eta laguntza eskainiko du. Kudeaketa horren ahalduntzeak elikaduraren segurtasun faltari aurre egiteko erresilientzia indartuko du. Modu horretan, ekoizpen-eredu eta garapen sozioekonomikoaren eredu jasagarria eta inklusiboa sustatuko da, landa eremuko Nigerren dauden desparekotasunak gainditzen lagunduz.

**Dirulaguntza:** 21.322,73 €

10. **Proiektua:** Ur-putzuak eraikiz Doubadana, Dihe, Kagberi II eta Ngabouna II komunitateetan urratutako eskubideak hobetzen laguntzea.

**Herrialdea:** Txad

**GKEa:** Solidaridad, Educación, Desarrollo (SED)

**Jarduerak:** Proiektu honetan, zaugarritasun egoera larrian dagoen populazioa topatzen dugu; erabat txirotutako ingurune bateko landa-herriak dira. Honako ekintza hau, populazioari edateko ura eskuratu ahal izatea bermatzeko jarraipen

ekintza da eta ura landa eremuko 4 komunitateri bermatuko die: Dubadana, Dihe, Kagberi II eta Ngabouna II-ri. Komunitate horiek haur eta eskolatze adinean dagoen populazio kopuru handia du. Aipatu 4 komunitate horiek aukeratu ditugu gaixotasun gastrointestinal gehien dituztenak direlako baita horren ondorioz heriotza gehien dituztenak ere. Gure kontrako alderdia, el Groupement, 6 urte daramatza datu horiek biltzen ur-putzuak non jarri lehenesteko. Gure proiektuan, gaixotasunen prebentzioa landuko dugu biztanleei kalitatezko ura eskainiz eta gaitze-ikastaroen bidez osasuna sustatuz. Ikastaro horiek higieho ohiturak eta uraren bidez kutsatzen diren gaixotasunak izanen dituzte hizpide eta komunitate guztietan egingen dira bai helduekin bai haurrekin eskolan ere.

**Diru-laguntza:** 24.000,00 €

11. **Proiektua:** Oinarrizko hezkuntza inklusibo eta parekidea ahalbidetzea Saly Velingara auzoan.

**Herrialdea:** Senegal

**GKEa:** COOPERA

**Jarduerak:** COSEN toki elkarteak 2016an hasi zuen Arco Iris eskola eraikitzen haur hezkuntzako 3 gelek. Azkeneko ikasturteak, 97 ikaslerekin, kalitatezko hezkuntza jaso du, ingeleseko eta gaztelaniako klaseekin ere bai. Eskola horretan amaitu duten haurrek urrunagoko beste eskoletara joan behar dute lehen hezkuntza egitera. Beraz, lehen hezkuntzako 2 gela berrirekin zikloa osatuko lukete honela: Haur hezkuntzako zikloa (6 urte), Lehen hezkuntzako zikloa (7 urte), Ziklo I (8 urte). Oinarrizko hezkuntza bultzatzeko proiektua da. Genero ikuspegia du eta Senegalgo Gobernuaren politikekin bat dator (Senegal suspertzeko plana).

Horretaz gain, irakasleentzako trebakuntza egingo da, ikasleen amentzako alfabetizazio ikastaroak eskainiko dira baita inklusioari eta haurren eskubideei buruzko tailerrak ere. Azkenik, gurasoei haien seme-alabak hezteko laguntza eskainiko zaie.

**Dirulaguntza:** 23.543,30 €

### 2016-2018ko hiru urteko proiektua

Ekitaldi honetan, Rode fundazioak hiru urteko proiektuan (Lehorreak eragindako gosetearen kontrako ekintza integrala Kokuselei eskualdeko hiru komunitatetan, Ipar Turkanan, Kenyan) aurreikusitako jarduerak egin dira. Proiektua 2016aren amaieran jarri zen martxan, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu ondoan Barañaingo, Burlatako eta Eguesibarko udalen, Iruñerriko Mankomunitatearen eta NUKFren beraren artean (azken hura Garapen Lankidetzarako Funtsa ordezkaturik). Garapen Lankidetzarako Funtsak 35.000 euroko ekarpena egingo du urtero.

Proiektuak era integralean erantzuten dio Ipar Turkanan, Kokuselei eskualdean izandako lehorte luzeen ondorioz sortu den goseteari (Ngameriek, Alagama eta Ekurrunchanai). Herritarrik ahulenak lehenesten dira: emakumeak eta 6 urtetik beherako umeak, herritar osasuntsuak abiapuntu hartuta, oinarritzko baliabide eta azpiegiturekin, oraina eta geroa duinagoa izan dadin denontzat. Lau esparru ditu jomuga: Ura (eguzki-energia baliatzen duten 3 ponpa, ganaduantzako askak, itzaleko ikasgelaraino ura eramatea, itzaleko ikasgelako sukaldea, dutxak, baratzea...), osasuna (populazioari aldizkako errebisioak egitea eta bereziki haurrei, klinika mugikor bat baliatuta), nekazaritza (3 baratze abiatzea nekazaritza ezagutzen ez duten komunitateetan, pertsonak nekazaritza gaietan trebatzea...) eta haurren elikadura (210 haurren desnutrizioari arreta eta prebentzioa eskaintzea...) etab. Proiektu bakoitzaren amaieran, komunitate bakoitzak ondorengoak izanen ditu: eguzki-energia baliatzen duen ponpadun putzua, ur-biltegia, itzaleko ikasgela haurrentzat, amek haurrentzako janaria prestatzeko sukaldea, dutxak, komunak, janariarentzako biltegia, baratzea haurrak elikatzeko, ondoren, gainontzeko populazioa elikatzeko eta soberakinak baleude produktuak saltzeko.

### Hitzarmena GGKEen Koordinakundearekin

NUKFK aurten ere lankidetzaz hitzarmen bat izenpetu du Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin, helburua izanik hari atxikitako GKEen jarduketak Nafarroako udalerrri eta kontzejuetara hurbiltzea eta haiei aholkularitza ematea toki entitateek lankidetzaren arloan egiten dituzten laguntza deialdiei buruz.

### Nafarroako elikagaien bankua

NUKFK Nafarroako Elikagaien Bankuari laguntzeko duen programari eusten dio. Entitate hori asmorik gabekoa da eta beharra duten pertsonei entitateek eta enpresek emandako oinarritzko elikagaiak banatzea du helburu.

Kontuan hartu behar da Bankuak berak banatzen dituela bere produktuak udalerrri askotan. Aurten, 32 udal aritu dira bankuarekin elkarlanean eta, besteak beste, 93.000 euroko ekarpena egin diote.

## Hiri eremuak berreskuratzeko dirulaguntzen deialdia

NUKFK "La Caixa" eta CAN banku fundazioekin izenpetua duen hitzarmena berritu du. Hitzarmenarekin bat, 90.000€ eman zaizkio guztira NUKFri, 2.000 biztanletik beherako toki entitateen artean banatzeko, baldin eta langilerik kontratatu badute Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren deialdien babesean. Laguntza horretan, 2.500€ lor daitezke gehienez.

2019ko ekitaldi honetan, 2018ko eta 2019ko deialdiak ebatzi dira eta bakoitzean 90.000 euroko kopurua mantendu da. 2018ko deialdian 57 entitatek parte hartu zuten eta 151 pertsona behin-behinekoz kontratatu ahal izan ziren, hots, lanaldi osoko 54 langileren baliokidea. Eskatutako aurrekontutik %71 finantzatu ahal izan zen. 2019ko deialdian, berriz, 53 entitatek parte hartu zuten eta finantzazioaren behin-behineko portzentajea %79 da.

### 2018ko deialdiaren ebazpena

Zk.	TOKI ENTITATEA	HERRIA	ESKAERAKO AURREKONTUA	BEHIN-BEHINEKO DIRU-LAGUNTZA	BEHIN BETIKO DIRU-LAGUNTZA (74,00%)
1	Kaseda	975	4.733,43	2.500,00	1.850,11
2	Garinoain	456	3.314,31	2.500,00	1.850,11
3	Goizueta	717	2.700,00	2.500,00	1.850,11
4	Imotz	430	4.297,85	2.500,00	1.850,11
5	Los Arcos	1.104	8.553,52	2.500,00	1.850,11
6	Deikaztelu	612	3.832,03	2.500,00	1.850,11
7	Etaiu	70	1.286,74	1.286,74	952,25
8	Jaitz	113	4.577,93	2.500,00	1.850,11
9	Beasoain-Egillor	111	5.482,76	2.500,00	1.850,11
10	Oibar	800	6.169,74	2.500,00	1.850,11
11	Ameskoabarrena	750	3.421,66	2.500,00	1.850,11
12	Arantza	623	9.194,94	2.500,00	1.850,11
13	Arbizu	1.119	5.201,92	2.500,00	1.850,11
14	Arellao	159	1.013,62	1.013,62	750,12
15	Areso	261	1.101,68	1.101,68	815,29
16	Arroitz	1.044	12.132,67	2.500,00	1.850,11
17	Artaxoa	1.658	4.574,31	2.500,00	1.850,11
18	Azketa	52	799,84	799,84	591,92

19	Barasoain	650	8.109,35	2.500,00	<b>1.850,11</b>
20	Basaburua	850	5.159,28	2.500,00	<b>1.850,11</b>
21	Beire	298	4.228,96	2.500,00	<b>1.850,11</b>
22	Cabredo	101	966,72	966,72	<b>715,42</b>
23	Donamaria	434	3.273,11	2.500,00	<b>1.850,11</b>
24	Ezporogi	44	5.273,41	2.500,00	<b>1.850,11</b>
25	Galipentzu	99	4.459,82	2.500,00	<b>1.850,11</b>
26	Genevilla	76	3.296,22	2.500,00	<b>1.850,11</b>
27	Genbe	32	1.037,87	1.037,87	<b>768,07</b>
28	Gesalatz	454	2.584,39	2.500,00	<b>1.850,11</b>
29	Igantzi	626	15.747,83	2.500,00	<b>1.850,11</b>
30	Iguzkitza	208	410,01	410,01	<b>303,43</b>
31	Ituren	519	3.036,25	2.500,00	<b>1.850,11</b>
32	Itza	1.192	2.966,11	2.500,00	<b>1.850,11</b>
33	Izurtzu	25	938,34	938,34	<b>694,41</b>
34	Ameskoako Limitaciones mendiko Batzordea	1.217	3.641,63	2.500,00	<b>1.850,11</b>
35	Larraun	974	2.606,40	2.500,00	<b>1.850,11</b>
36	Lerin	1.654	5.903,14	2.500,00	<b>1.850,11</b>
37	Ledeia	301	4.989,64	2.500,00	<b>1.850,11</b>
38	Irunberri	1.336	3.758,52	2.500,00	<b>1.850,11</b>
39	Elo	479	1.185,28	1.185,28	<b>877,16</b>
40	Monteagudo	1.078	3.422,55	2.500,00	<b>1.850,11</b>
41	Murillo el Cuende	659	8.824,17	2.500,00	<b>1.850,11</b>
42	Oko	77	13.155,69	2.500,00	<b>1.850,11</b>
43	Pitillas	492	6.750,85	2.500,00	<b>1.850,11</b>
44	Arrada	579	4.764,23	2.500,00	<b>1.850,11</b>
45	Rocaforte	37	3.619,20	2.500,00	<b>1.850,11</b>
46	Sartaguda	1.316	5.341,45	2.500,00	<b>1.850,11</b>
47	Torralba del Rio	110	2.941,22	2.500,00	<b>1.850,11</b>
48	Tulebras	123	2.074,32	2.074,32	<b>1.535,09</b>
49	Uharte Arakil	828	391,99	391,99	<b>290,09</b>
50	Untzue	136	1.303,17	1.303,17	<b>964,40</b>
51	Urbiola	44	278,17	278,17	<b>205,86</b>
52	Urdiain	671	3.385,06	2.500,00	<b>1.850,11</b>
53	Erroibar	789	4.531,69	2.500,00	<b>1.850,11</b>
54	Villamayor de Monjardin	115	2.735,59	2.500,00	<b>1.850,11</b>

55	Villatuerta	1.178	5.895,85	2.500,00	<b>1.850,11</b>
56	Esa	291	1.326,51	1.326,51	<b>981,68</b>
57	Zubieta	308	3.587,42	2.500,00	<b>1.850,11</b>
	<b>GUZTIRA</b>		<b>240.290,36</b>	<b>121.614,26</b>	<b>90.000,00</b>
	<b>Finantzazioaren portzentajea</b>				<b>74,00%</b>

2019ko DEIALDIAN PARTE HARTUTAKO ENTITATEAK (behin betiko ebazpenaren zain)

Zk.	TOKI ENTITATEA	BIZTANLEAK	ESKAERAKO AURREKONTUA
1	Abartzuza	550	2.065,40
2	Ameskoabarrena	730	1.709,48
3	Arakil	949	2.372,34
4	Areso	275	368,75
5	Arroitz	1.047	8.758,16
6	Artaxoa	1.669	2.163,71
7	Artatza	142	1.856,91
8	Auritz	242	4.924,21
9	Ageza	36	4.230,39
10	Azketa	50	544,51
11	Bakedao	128	2.500,74
12	Barasoain	639	9.547,46
13	Barindao	93	1.950,28
14	Basaburua	839	2.669,50
15	BEIRE	275	4.085,59
16	Cabredo	97	2.652,10
17	Carcar	1.039	2.690,88
18	Kaseda	980	4.630,70
19	Oltza Zendea	1.842	1.835,05
20	Donamaria	431	5.590,43
21	Eritzegoiti	34	1.577,56
22	Esprontzeda	103	1.581,28
23	Galipentzu	100	3.659,75
24	Genevilla	74	6.265,93

25	Goizueta	705	2.928,52
26	Gesalatz	444	2.568,32
27	Imotz	425	7.494,11
28	Ituren	504	1.781,32
29	Itza	1.199	4.014,33
30	Izurtzu	22	1.578,06
31	Ameskoako Limitaciones mendiko Batzordea	1.217	2.425,00
32	Erronkariko Iboxaren Batzorde Nagusia	1.325	2.077,74
33	Legaria	110	750,20
34	Ledea	291	3.696,27
35	Los Arcos	1.117	9.394,10
36	Irunberri	1.317	6.218,27
37	Monteagudo	1.088	7.172,59
38	Muneta	38	180,63
39	Olexoa	51	1.353,45
40	Oteitza	919	2.797,59
41	Pitillas	493	5.271,30
42	Arrada	570	3.038,02
43	Rocaforte	35	11.454,74
44	Jaitz	110	2.641,87
45	San Martin Unx	398	2.882,00
46	Sartaguda	1.294	4.719,99
47	Torralba del Rio	104	2.287,59
48	Tulebras	134	7.918,59
49	Udabe-Beramendi	84	2.163,06
50	Untzue	137	4.156,35
51	Erroibar	789	7.220,14
52	Villatuerta	1.186	8.706,01
53	Zubieta	316	1.824,46

## **BESTE ZERBITZU BATZUK**

### **GESERLOCAL**

2018ko azaroaren 1etik 2019ko urriaren 30era bitartekoak dira txosten honetako datuak.

#### **Nahitaezko diru-bilketaren zerbitzua**

331 dira Geserlocal SLrekin premiamendu bidezko diru-bilketan laguntzeko zerbitzua kontratatua duten toki entitateak, horren barnean direla udalerrriak, kontzejuak, mankomunitateak eta ureztatzaileen elkarteak.

Epe horretan kudeatu den zor bolumena 57.734.481,38 eurokoa da, lehenago aipatutako entitateei dagokienez. Kudeatu den zor bolumenetik, 6.912.065,76 euro ebatzi dira. Horietatik, 5.164.229,16 euro dira kobrantzakoak. Kudeatutako zorraren zenbatekoak nahiz ebatzitako zorrarenak zenbateko nagusiei dagozkie, kanpoan direla errekaruak eta kostak.

#### **Kontularitza publikoaren gaineko aholkularitza zerbitzua**

Kontularitza publikoaren gaineko aholkularitza zerbitzuaren barnean, 36 udalerritan, 63 kontzejutan eta 4 mankomunitatetan egin da zerbitzu hori.

Epe horretan, 202.262,93 eurokoa izan da fakturazioa kontularitza publikoaren arloko zerbitzuak egiteagatik.

#### **Isunak borondatezko epean biltzeko zerbitzua**

50 udaletan ematen da isunak borondatezko epean biltzeko zerbitzua.



## Energia konpainiak

NUKFK jarraitu du %1,5eko tasaren kobrantza kudeatzen 619 toki entitaterentzat.

Honako hauek dira ekitaldian zehar kudeatu diren zenbatekoak, 2018ko 4. hiruhilekoari eta 2019ko 1., 2. eta 3. hiruhilekoei dagozkienak:

	ZENBATEKOAK	Toki entitateen kopurua	OHARRAK
<b>Iberdrola</b>	3 055 420,35	425	
<b>Endesa</b>	172 871,97	47	
<b>EDP merkaturatzailea</b>	255 608,66	182	2019ko 3. hiruhilekoa likidatu gabe oraindik
<b>EDP; CHC; CIDE</b>	172 871,97	49	
<b>Acciona Green</b>	15 102,70	150	
<b>Goiener</b>	48 429,75	45	
<b>Enagas</b>	1 877 485,42	213	
<b>Naturgy</b>	106 899,83	199	
<b>Viesgo Energía</b>	15 536,10	31	
<b>Electra Valdizarbe</b>	41,30	8	
<b>Xenera</b>	3 055 420,35	425	